

ZENBAT BURU
Maite Vallejo

ERREPORTAJEA
Zazpiki irratia
15 urte airean

GEHIGARRIA
TxikiBARREN

BERBETAN
Arnaldo Otegi
HBko bozeramailea

KIROLA
Aitor Garitagoitia
Euskadiko Oilagor
Txapelketako
irabazlea

KULTURA
Luziano margolari
elgoibartarraren
erakusketa

BARREN

1999ko abenduaren 17a
VII. urtea - 302. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Arnaldo Otegi

NC
CLASSCS

immnork ez du bake prozesua
eleterik nahi, ezta ETAk ere''

“Bakiak ez dauka preziorik” Esaera zaharra



URNOBITZA S.L.

Aseguru-Bitartekaritza

Pedro Migel Urruzuno. 31 behea
Tel./faxes: 943 74 28 64 • Mobila: 610 29 18 17

URNOBITZAK BEZEROEN ARTEAN EGINDAKO ZOZKETAREN 1RABAZLEAK HAUEK IZAN DIRA



▶ CARME.O LOYOLA
IDIAQUEZ
izan da bideodun
telebistaren irabazlea.



JOSE LUIS <
LEAL PABLO
izan da diru-txekearen
irabazlea.

Htuit Pla mm44441 deftuf

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



1 Or Jr 6 deskontua
Gazte 7r(i.T(E.friwp:I; 17





MAITE VALLEJO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun ingtarn aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Gabonak = misterioa

Kaixo irakurle guztioi:

BARRENekin hartu nuen konpromisoa bukatzen dut azken atal honekin, eta datozen egunak kontutan hartuz, nere ikuspuntua azalduz emango diot amaiera betebeharrori.

Bai, egun gutxi barru Gabonak ditugu. Asko hitz egin da gai honi buruz, eta badirudi ez dagoela gauza gehiago esateko, ezer berririk ez behintzat. Asko hitz egin da, eta baita asko idatzi ere. New Yorken dagoen liburudenda batean (munduan direnen artean, handienetako batean), 17.000 liburu omen daude Jesusen bizitzari edo mezuari buruz idatzitakoak. Honek zer esan nahi ote du? Belenen orain dela 2000 urte jaino eta 33 urteko bizitza laburra izan zuen pertsonaia xume batek, nola eman dezake hainbeste idazteko edo hitz egiteko aukera? Garrantzi gabeko bizitza labur bat izan zitekeenak, hara zer nolako eragin handia eduki duen mendez mende, ondoren etorri diren gizaki guztien gan. Badu bai, gai honek bere misterioa.

Gure garai hauetan ere, jarraitzen dugu nolabait Gabonak ospatzen. Batzuek ez diote zentzurik emango. Egongo da Gabonak oporrak direla pentsatzen duenik ere, edo kaleetan argi pila ipintzen den garaia, edo ederki jan eta edaten den sasoi, edo opariak egiten direna, abestiak abestu, etabar esango

duenik ere. Nere kasuan esan behar dut, biziki ospatzen ditudala Gabonak. Egun hauetan, misterio handi baten barranean sartzen gara: gauza guztien eta bizitza beraren sortzailea den Jaungoikoak gureganako begirunea izanik, mezulari bat bidali zuen mundura, bere semea hain zuzen ere, aita horrenganako bidea guri ezagutaraztera, benetako bizitzaren eta zoriontasunaren bidea guri erakustera, maitasunaren legea azaltzera, alegia. "Inor ez da beste mundutik etorri" sarri entzuten den esaldi bat da. Horra hor ba, etorritako bat, datorren astean

bere jaioteguna ospatuko den Nazaretoko Jesus. Bizitza tokatu zitzaien gizarte hartan ez zen garailea izan. Gehiengoak ez zuen txalotu, eta gaizkile baten pare bukatu zituen bere egunak gurutze batean. Hala ere, eta hara hor misterioa, gaur egun, sinesten dugunon artean behintzat, bizirik jarraitzen du. Bere mezuak gaurko gizarterako baliagarria izaten jarraitzen du. Bere maitasunak asetzen ditu gure bihotzetako gogo guztiak, poza, pakea eta bizitzari zentzua ematen Wo."

"Jaungoikoaren mezuak gaurko gizarterako baliagarria izaten jarraitzen du. Bere maitasunak asetzen ditu gure bihotzetako gogo guztiak, poza, pakea eta bizitzari zentzua ematen Wo."

duenik ere. Nere kasuan esan behar dut, biziki ospatzen ditudala Gabonak. Egun hauetan, misterio handi baten barranean sartzen gara: gauza guztien eta bizitza beraren sortzailea den Jaungoikoak gureganako begirunea izanik, mezulari bat bidali zuen mundura, bere semea hain zuzen ere, aita horrenganako bidea guri ezagutaraztera, benetako bizitzaren eta zoriontasunaren bidea guri erakustera, maitasunaren legea azaltzera, alegia. "Inor ez da beste mundutik etorri" sarri entzuten den esaldi bat da. Horra hor ba, etorritako bat, datorren astean bere jaioteguna ospatuko den Nazaretoko Jesus. Bizitza tokatu zitzaien gizarte hartan ez zen garailea izan. Gehiengoak ez zuen txalotu, eta gaizkile baten pare bukatu zituen bere egunak gurutze batean. Hala ere, eta hara hor misterioa, gaur egun, sinesten dugunon artean behintzat, bizirik jarraitzen du. Bere mezuak gaurko gizarterako baliagarria izaten jarraitzen du. Bere maitasunak asetzen ditu gure bihotzetako gogo guztiak, poza, pakea eta bizitzari zentzua ematen dio. Zorionekoak sinisten dutenak! Misterio bat da, bai, baina irekia dagoen guztiari argia ematen dion misterio bat...

Izan dezazuela guztiok itxaropenez eta maitasunez beteriko Gabon zoriontsuak pasatzeko modua eta baita misterio horrekin aurrez aurre izateko aukera ere.

Barrak, Birrak eta Barreak



IDKCK099 083



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
if 943 74 41 12
Publizitatea:
ri 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.lhardun.connibarren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Ion Eugi, Asier Orbea
PUBLIMTATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Altzot Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrafiaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Unzar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPREMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1,038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Aurtaritzako
Kultura Saiktk eta
Foru Aldundiak
diruz
lagundutako
aldizkaria.



gizarte-ekintza
obra social

DANOBAT

44

MI

Eusllall linuesealt lierdra

Magun talde bat elkartu gara eta da-
torren Gabon Zaharreko Ferixan
'Euskal Presoak Euskal Herrira' lelo-
arekin bat eginez, taloak egiteko as-
moa daukagu. Nondik norakoak pres-
tatzeko, datorren asteazkenean, hila-
ren 22an, arratsaldeko 19:30ean Kul-
tur Etxean elkartuko gara. Parte hartu
nahi duenak, agertzea besterik ez dau-
ka. Animatu, eta ea denon artean eus-
kal presoen eskubideen alde gauza
majo bat egiten dugun.

L. A

Udal Kirol Patronatuari

n_auzak mahai gainean jartzeko
dua heldu dela uste dugu. Igerile-
kuko obrak atzeratu direla-eta, 3 hila-
bete pasa dira instalakuntza hau erabi-
li ezinda.

Hasieran, ekainean edo uztailean
jasotako zirkular baten bidez, irailan
irekiko zutela agindu zuten; gero ire-
kiera data urriaren erdi aldera aldatu
zen; beranduago, urriaren bukaeran
izango zela esan zuten; eta azkenik
azaroaren Sa izan da igerilekuaren
ateak zabaldu diren eguna. Bien bitar-
tean, Kirol Patronatuak ematen zuen
irtenbidea, Azkoitiko igerilekua era-
biltzearena zen.

Gure galdera hau da: arratsaldeko
7ak arte lan egiten duen bazkide bati,
denbora eta gogoia gelditzen al zaizkio
Azkoitiara joateko, (kotxea aparkatu,
kotxea baldin badu)...? Eta zer egingo
luke kotxerik ez duenak?, Eta mugit-
zeko denbora, gogoia eta medioa du-
tenen bidaia gastuez, nor arduratzen
da? (Badaude igerilekua egunero era-
blitzen dutenak, eta egunean Azkoitia-
ra 2 bidaia egiteak, poltsiko guztiek
jasan ezin duten diru estra bat suposa-
tzen du).

Dagoeneko ireki dute igerilekua,
eta Udal Kirol Patronatuak eman duen
erantzuna hau izan da: "Abenduan
bazkide guztiek dohainik izango di-
tuzte ondorengo instalakuntzak: tenis

eta squascheko pistak, sauna eta hi-
dromasajea". Bazkide asko gara 4 ins-
talakuntza hauek erabiltzen ez ditugu-
nak, eta hilabete batean dohainik jarri
arren erabili gabe jarraituko dugu.

Akaso, 4 instalakuntza hauek gu-
txien erabiltzen direnak dira? Badiru-
di baietz, eta Kirol Patronatuarentzat
ez da esfortzu handia izango (diru sa-
rrerak kontabilizatzeko orduan) hila-
bete batean dohainik eskaintzea (jai
gehien dituen hilabetean, alegia).

Bukatzeaz dago 1999. urtea eta
2000. urtearen hasierarekin, Kirol Pa-
tronatua urteko kuotak kobratzen ha-
siko da. Kontuan izango al du 99. ur-
tea oso osorik ordaindu dugula, eta 3
hilabetez igerilekua erabiltzeko auke-
rarik ez dugula izan? Bazkide guztiak
berdinak garela uste dugu Kirol Patro-
natuak eskaintzen dizkigun instala-
kuntzak erabiltzeko. Ez dugu uste au-
kera gehiago eman behar zaionik tenis
pista erabiltzen duen bazkideari
(abenduan dohainik) igerilekua era-
biltzen duenari, baino.

Udal Kirol Patronatuak erabaki
hau berrikusiko duela espero dugu,
bazkide guztiak berdintzat hartuz; Eta
2000. urteko kuota kobratzeko mo-
mentuan, kontuan izan dezala, urte
osoko kuota ordaintzen dugunok, urte
osoan erabili nahi ditugula instalakun-
tzak.

I.A. eta beste 28 bazkide

BARRENek ez du bere gain harlzen IRITZIA eta ESKUTITZAK alaletan adierazitako erantzukizunik.
Eskutiz guztiek ondo identifikatula egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



©1111111

• Herritar batek benetan galdera bitxia egin digu aste honetan: "Telebista ikusten ari nintzela. Real Madrileko presidentea, Lorenzo Sanz atera zen etxeko pantailan. Bere txaletaren atarian harrapatu zuten kamerek. Ohiko kontuei buruz hitz egin zuten, krisia eta Anelka gora eta behera, baina benetan harritu ninduen etxearen izena izan zen. Zer ikusiko eta Elgoibar, 4 ipintzen zuen etxearen goiko letrero txoan. Kuriosidadea piztu zitzaidan eta BARREnera deitzea erabaki nuen badaezpada, ea inork ba ote dakien izenaren jatorria. Beraz honako hau da nire galdera: Zergatik dago Lorenzo Sanzen etxeko atarian Elgoibar izena idatzita?"

Galdera bitxi honen erantzunaren bila, Real Madrileko egoitzara deitu genuen. Elgoibar Real Madrileko presidentea bizi den urbanizazioko kale baten izena dela argitu ziguten, baina ez zekite-la beste ezer ere. Dena den, luxuzko kale bati izen egokia jan i zioten dudarik ez dago.



• Herritar batek abenduaren 10ean **Elgoibarko Izarrak antolatutako 'Kafe Usainean' saioa txalotu nahi du.** "Herriko 6 artisten arteaz gozatzeko aukera izan genuen: Silviaren pianoak melodia dotorez jantzi zuen Kultur Etxeko sotoa; Gabi 'rockero zaharraren' gitarra, errege bihurtu zen gau baterako; 'Guru' gaztearen ahots bluseroak oilo-ipurdia atera zigun denoi; Andresen flautak, berriz, belarriak goxatzeko aukera eman zigun; 'Alon'-ek, bere aho-soinuarekin jarri zituen erritmoea eta berotasuna; eta Badiolak, tarteka berba eragin zion bere gitarrari. Ez zegoen, ez, hotzik pasatzeko arriskurik Kultur Etxeko sotoan. Eric Clapton, Neil Young, Animals, Bad Company... denak egon ziren Elgoibarren, gau baterako... (hurrengo noiz?). Xapo eta mila esker".

TABERNA-JATETXEA

SOZIJATEA JARTZEKO EGOKIA SALGA1.

Pedro Muguruza etorbidean (200m2). Ekipatua eta oso prezio onean. Informazioa aurrez-aurre.

.1111

INMUEBLE AGENTZIA


ELGOIBAR 943 74 42 83

OIERKI IGOGAILUAK

UITU tira deitu gabg, bertak ook segituan kanponduko

'1' 943 20 35 15 • ABERIAK 943 20 31 25

Bista Eder, 11 (sotanoa) e 20600 EIBAR



Gogoratu

aurten ere enkarguak **DOHAINIK** lor ditzakezula!

943 74 28 75

Zazpiki irratia

15 urte oirean

Zazpiki Irratiak, 'herritarrek herriarentzat eginiko irratia'k, 15 urte bete zituen pasa den abenduaren 11n. irrati libreen 'bo-oml-arekin batera 80ko hamarkadaren hasieran sortu zen, eta 15 urte beranduago uhinetan jarraitzen duten irrati libre bakarrenetakoa dugu. Zazpiki Irratiak 15 urteko ibi1bidean gorabehera asko izan ditu. Guk, Zazpikiren lehena, oraina eta geroari buruz gehiago jakin nahian, Marijo Garmendia, Nestor Fuente eta irratiaren munduan sartu berri diren Mariaje Granero, Ander Mujika eta Jon Zaldua gazteekin berba egin dugu.



Argazkian, Zazpiki sortzen lagundu zuten elgoibartar batzuk ageri dira, tartean Marijo Garmendia. Txoznak ziren ekipoak erosteko diru iturri nagusia.

Marijo Garmendia: Lehen Urratsak

Duela 15 urteko abenduaren 11 n, elgoibartarrek irratia 1077 frekuentzian jarri eta lehen aldiz Zazpiki Irrati entzuteko aukera izan zuten. Musika zaletasunak bultzatuta, geldirik egon ezin zuen gazte talde batek sortu zuen Zazpiki irratia. Gazte haien artean Marijo Garmendia zegoen, gaur egun Herri institutuko psikologoa dena. Marijori lehen urrats haien berri emateko eskatu diogu, eta irribarrea nabari zaio aurpegian garai haiek gogora ekartzeko eskatu diogunean. "Garai hartan irrati libre asko sortzen hasi zian eta lagun batzuk Elgoibarren ere berdin in genezakeela pentsatu genuen. Gauzak horrela, Gabi jatetxe zaharrian elkartzeko hasi ginan astelehenero eta bertan eztabaidatzen genitxun irrati libre bat martxan jartzeko biharrezko gauzak. Tabernan barruko al-dian biltzen ginan eta lehen urtietan, Zazpikiko bilerak eitzeko egoitza haura izan zan. Oso oroitzapen onak ditxut bilera

haietaz, asmo eta ideia berri mordo bat jartzen genitxun mahai gainian, ilusio haundixa geneukan. Bestalde, komenigarria iruditzen jata Zazpiki sortzen lagundu zabenen izenak aipatzia: Arantxa Etxeberria, Oscar Ondarza (t), Pedro Rodriguez (), Haki Ansola, Carlos Ansola, Pedro Ezkurra, Koido Aranburu (berea izan zen Zazpiki izena jartzearen ideia), Karmen Iriondo, Edu Largo (t), Mari Jose Garmendia, Mariaje Beristain, Peio Aizpurua, Marijo Olivares, Amaia Olivares, Gerardo Araujo, Juanma Arce, Kurutz Kastrillejo, Marijo Jaio, Txotxe, Iban Basalo, Leizabe, Carmel Iriondo eta Txetxo Juaristi izan ziren fundatzaileak. irsor ez ahaztea espero dut". Marijok azaldu digunez, Azpeitiko Kakaflash eta Gasteizko Hala Bedi irrati break izan ziren euren erreferentziak, "bisita asko in genitxuan zeozer ikasteko asmoz". Ondorengo pausoa materiala eros-

teko dirua lortzea izan zen, "Barricadan kontzertu bat antolau gendun ikastolako frontoian, baina gauzak ez zitzaizkigun oso ondo urten eta dirua galdu gendun. Ez gendun etsi, eta San Franizisko itxurixaren onduan txosna bat jarri gendun. Ez zauan txosnak jartzeko ohitxura haundirik eta arrakasta itzela euki zaban. Nahiz eta auzotarrak ateratzen gendun zarata zala-ta, asko kejav. Oso giro majua zauan. Gau pasak itxen genitxuala akordatzen naiz". Txosnatik ateratako diruarekin aparailu guztiak erosi zituzten, eta Udaiak Kultur Etxea dagoen lekuan utzi zizkien bi lokale-tatik hasi ziren emititzen, "medio gitxi euki arren i[usiva geneukan eta ixa egunero zauden programak, gehixenak musikalak izan arren, kalitatezko eztabaidak ere bazauden. Hasieran erderaz itxen gendun



Nestor Fuentek hamaika urte daramatza "Filobibliion" irratsaioan. Bere iritiz, Zazpikiren helburua hotsik gabekoen ahotsa izatea da.

gehixena. Bestalde, pare bat urtez Krosa ere erretransmititu gendun Lerunetik, baitxa famatuei elkarrizketak ere: krosetako korrikalariak eta Ouka Lele argazkilaria, esaterako. Irratixan aitzakixakin gauza asko in genitxun elkarrekin, eta lagungiro aparta sortu zan. OTANen aurkako manifestaldixan in gendun antzerkixa etortzen iata burura."

Marijok bi irratsaio izan zituen, "batian umeak eramaten nitxuan irrattira eta ipuinak eta txistek kontatzen genitxun. Bestia, berrix, magazin modukua zan. Astebarruan entzundako albiste interesgarrixak komentatzen nibwan". Zazpiki sortzen lagundu zutenak irrattia lagatzen hasi ziren gutxina-ka, "Plaza txikiko lokalera aldatzean, gehienok jende berriari utzi genion lekua".

Nestor Fuente Gaz egungo Zazpikiko ahotsa

Nestor Fuentek Zazpikirekin duen erlazioa aspaldiko kontua da, izan ere, 11 urte daramatza Filobibliion irratsaio mitikoa larunbatero egiten. Beraz, nor bera baino hoberik Zazpikiren egoeraz hitz egiteko? "gaur egun ez dao hasierako indarrik ez herri mailan, ezta irrattia barruan ere. Ni ha-

si nitzanian jendia gogo gehixokin eta zentratuao zauan proiektuakin, baina edade batera ailegatxian laga itxen dabe. Horixe da Zazpikin problemia, denboraldi bat bertan eon eta jendiak laga itxen dau, justo onenian zauanian. Errelebo generazionala ematen da, baina sar-

tu berrixek dana ikasi bilxartian kalidadia eta norabididia gaitzen da. Hala ere, mantentzia ere ez da

marka makala. Dena den, herriko kolektibuek Zazpikik eskaintzen ditxun aukerak, ez ditxuztela bihar beste aprobetxatzen uste dot. Egungo azpiegitura eta materialek nahi adina fruitu ateratzeko aukerarik ere ez dute eskaintzen. Izan ere, gure irrattiak XXI. mendearen atarian, 80ko hamarkadako irrattia bat izaten jarraitzen du, komunik ere

ez daukagu-eta. Orain arte inprobisazioa nagusi izan arren, ezagunak izatera iritsi diren kazetari asko pasa dira hemendik". Nestorren iritiz, irrattiak berehalakotasunaren abanbila du beste komunikabideekin, "lehenengua da berriak zabaltzen eta oso zuzena. Gainera, irrattia libreen kasuan, komunikabide ofizialeatik kanpo geratzen diazen berrixak eza-gutarazten dia. Irrattia konbentzionalekin parekatuz, edozertaz hitz egiteko askatasuna eta aukera paregabia dao Zazpikin. Irrattia libreen hasierako helburua, ahotsik gabekoen ahotsa izatea zen, baita euskal kultura suspertzea ere eta hortan ahalegintzen gara".

Gazteak, Zazpikiren etorkauna

Mariaje Granerok, Ander Mujikak eta Ion Zalduak 15 urte dituzte. Zazpiki sortu zenean jaio ziren eta beraiek dira ebrkizuna. Ikastolako Argitxo irrattian hartu zuten esperientzia, eta Zazpikikoek jende berriaren beharra zutela entzun zutenean animatu egin ziren "Argitxo-ko experien-

tzia asko gustau jakun, eta Zazpikin programa bat eukitzia aurrerapausa bat zanez, 6ilera batera azaldu eta programa bat hartu gendun. Argitxon gidoiak nola eitxen dian ikasi eta esperientzia handixa hartu gendun, baina ez zakagun Zazpikin dauan musika aukerarik. Konpakto berrixak heldu diala ikustiak ilusiva itxen du". Ostiralero bi irra-

"Herriko kolektibuek Zazpikik eskaintzen ditxun aukerak, ez ditxuztela bihar beste aprobetxatze n uste dot".

tsaio egiten dituzte 19:00etatik 21:00etara, "Anderrek eta nik (lan) "Berdin dio" izeneko programia itxen dou eta ondoren Mariaje eta Gaizka "Mechanical Animals" irratsaivakin hasten dia.

Bixak dia programa musikalak, baina taldei buruzko informaziva ere ematen dou. Guri gustatzen jakun musikia ipintzeko askatasuna dakau Zazpikin, izan ere, beste irrattixetan gure gusiuko musika gutxi jartzen dabe". Programak prestatu eta egiten, oso ondo pasatzen dutela azaldu digute. Gauzci berriak ikasteaz gain, lotsa galtzeko eta hitz egiten ikastea ezin aproposagoa omen da irrattia. "Musikia eta irrattixa txikitatik gustatzen jakuz eta aurrerantzian mundu honetan jarraitzio ez legoke gaizki".

Beraz, badakizue, 'Zazpiki Irrattia, herriarrek herriarentzat eginiko irrattia, FM 1077a n'.



Mariaje, Ion eta Anderrek 15 urte dituzte, eta irrattiarene munduak erakarrirta hasi dira Zazpiki Irrattian.

ler eskatu behar diozu Olentzerori?



JOSE LUIS URBIOLA
66 urte, jubilatua

Ezer berezirik ez, ez daukat ezeren biharrik-eta. Andreak edo seme-alabek oparitzen didatena hartuko dut. Ez dago Olentzero eguna heldu beharrik bakea eskatzeko.



BEGOÑA OÑEERRA
56 urte, etxekoandrea

Ez diot gauza handirik eskatzen baina etortzen danak, txikixena ere izen arren, beti itxen dau ilusiva. Osasuna eta bakia ekarriko balau gauza ederra izango litzake.



IBON GARCIA
17 urte, ikaslea

Normalian bideojoko bat eskatzen dot, asko gustatzen jatazelako. Gabonak dia eta detailia eukitzia da balio dabana. Bestela, osasun ona eukitzia eskatuko neuke.



ELENA GARATE
41 urte, administraria

Nik eskixak eta botak eskau bihar dizkiot neuretzat. Famili x tantzako gehixenbat, osasuna. Eta gizartiantzako osasuna eta lana eitxeko in-darra eskatuko ditxut.



MAITANE ETXEBERRIA
18 urte, ikaslea

Ez dakat opari espezialik eskatzeko. Betikoa eskatuko det, tontokeria txikiak. Gizartiantzat bakia nahiko nuke, batez ere, eta ondoren, lana.



J. LUIS LAZKANO
37 urte, almalzenista

Eskatzeko asmorik ez dakat, baina jasotzeko badakat esperantzia, ondo portau naiz-eta. Bestela, osasuna inportantia da eta bakia ere bai, horren biharrian gaudelako.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK **EUSKARAZ** eta **GAZTELANIAZ**.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**

944<di ena atawra Oke4 telyt em 16 4,teleleoi

Batez informazio eske

ARRA "MGA

Tel: 943 74 10 11

Peque choll

"AURREZTU EZAZU BERRI-BERRI dagoena EROSITA!"

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak
Jostailuak Oihalak Liburuak • Kaseteak • Bideoak Dekorazio osagarriak

Interesatuko zaizu!!

afire-iytZaS.9.9auz /r

SALEROSKETA

Ez bota...Ez gorde...Ez oparitu...

SALDU!!

NESKAK

5 urte baino gehiago badituzu,
konpetizioko kirola
gustuko baduzu eta
emozio berriak bizi
nahi badituzu...

IBAI KIROL ELKARTEAK
eskaintza zabala
eskainiko dizu



IBAI KLUBA nesken judo taldea
sortzen ari da, eta honako gauza
hauek eskaintzen dizkizue:

(KIROL EKINTZA UGARI:)

- Txapelketak
- Entrenamenduak
- Kontzentrazioak
- Beste herriekin eta taldeekin ikasle-trukeak

*Ez itxaron gehiago eta zatoz
IBAI KIROL ELKARTERA*

Gainera, ABENDUAN eta LJ1TARRLEAN eginez gero, matrikulo DOHA NIK izango da.

IBAI KIROL ELKARTEA • Santa Ana, 46 - Tel. 943 74 07 93

IRATXO

ROCKAFEA



ostegunean, hilaren 23an, hasiko gara...



Andres Elizondoren animazio lanak bigarren saria loptu du Lekeitioko nne Jaialdian

Andres Elizondoren animazio lan batek bigarren saria lortu zuen Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo

Jaialdian. "Eserlekua" izenburuko lanak amateur mailan, sormenezkoen arloan jaso zuen saria eta horri esker 35.000 pezeta poltsikoratu zituen. Ez da lehenengo aldia Andresek sari bat jasotzen duena, izan ere, iaz ere "Sinboloak" animazio lanarekin bigarren gelditu zen. Aurten, beste lan bat ere aurkeztu du Elizondok doktntentalen atalean baina hor ez diote saririk eman, berak gehienbat animazioa lantzen duelako.



300 lagun inguru elkartu ziren Plaza Handian bakearen aldeko kontzentrazioan

Jende multzo handia bildu zen abenduaren 3an, bakearen alde egindako kontzentrazioan. 300 lagun inguruk bat egin zuten Euskal Autonomi Erkidegoko lehendakariak, Juan Jose Ibarretzek, egindako deialdiarekin eta "Bakea behar dugu" lelopean Plaza Handian elkartu ziren. Deialdiak EAJ, EH eta EAren babesa eduki zuen eta horrela, alderdi abertzale ezberdinetako ordezkariak izan ziren kontzentrazioan. Plaza Handiak gutxitan bezalako itxura erakutsi zuen. Izan ere, ez da halako jendetzarik batzen normalean giza kontzentrazioak egiten direnean. Bakea eskatuz, 5 minutuko kontzentrazioa egin ondoren beren zereginetara itzuli ziren.

Ikastolako G. mailako ikasleak BARRLNen egon dira bisitan

Ikastolako 6. mailako ikasleak abenduaren 3an BARRENen izan genituen bisitan, herriko aldizkaria nola egiten den ezagutzeko asmoz. Neska-mutikoak taldeka etorri ziren. Guztira hiru talde egon ziren adi-adi esplikazioak entzuten. Informazioa biltzen denetik, astekaria inprentatik ateratzen den arte, prozesu guztia nolakoa den jakin zuten. Adierazi zigutenez, BARRENez gain beste komunikabide batzuk ere ezagutzen ibili dira. Joan aurretik argazkia atera genien eta hor dituzue denak batera BARRENeko atarian.



Soinujole elgoihartarrek dominak irabazi dituzte Arrasateko Akordeol Lehiaketan

Inazio Bereziartua Musika eskolako ikasleek dominak irabazi dituzte aurtengo Arrasateko Akordeoi Lehiaketan. Maitane Urangak, Laura Vegasek eta Ainhoa Zapatak zilarrezko domina eskuratu zuten "A hastapeneko" mailan eta Amaia Vegasek urrezko domina maila berean. Laura Agirregomezkortak eta Alasne Urangak, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuten B kategorian, "Ganbara musikan". Aurten ere, Arrasateko Lehiaketa soinujole askoren topagunea izan da abenduaren 6tik 8ra bitartean eta bertan elgoibartarrek, maila ona dutela erakutsi zuten.



IRATXO

ROCK-KAFEA



ostegunean, hilaren 23an, hasiko gara...

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 59. GEHIGARRIA



Erretratuan agertzen direnak Pilar ikastetxeko D.B.H. leko ikasleak dira. Gaztetxo hauek hiru egun pasatu zituzten Zestoon, Sastarraingo aterpetxean, hain zuzen ere. Bertan, ekintza ugari egin zituzten; Kobak bisitatu, mamia eta gazta egin, zaldiz ibili eta gauza berriak ezagutu, besteak beste. Oso ongi pasatu zuten baserri giroa ezagutuz eta guztiak elkarlanean arituz.

c.??,tea



Baserriko emakume bat haserre bizian doa maisuarengana protestatzera:

Aizu, Julenek ez ditu txerriak zaindu ii.

Eta zergatik zatoz kontu horrekin neregana? esaten dio maisuak harrituta.

—Zeuk erakutsi diozulako esaera zahar bat: "Noren laguna, halako nortasuna".

Jakitunen eskutik

dazkera okerra

Helduoi behin ikasi ostean arraroa iruditu arren, idazten ikastea oso gauza zaila da. Muskulazioari dagokionez, mugimenduen koordinazioa beharrezkoa da. Gainera, espazio konkretu batean idatzi ohi dugu eta beti inorabide zehatz batean (goitik behera eta ezkerretik eskumara, alegia). Hori dela-eta, haurrek letren direkzioak amainuak eta formak ezagutzen jakin behar dute. Baita sinbolizatzen eta soinuak letra bihurtzen ere. Benetan zaila, ezta?

Sei urterekin umeak sistematikoki idazten hasten dira, hasi marrazki antzeko hizkietatik eta kaligrafiara heldu arte. Baina orri zuri batean nahi dutena libreki marraztetik espazio txikiago batean idaztera mugatu behar dira. Horretarako honako pausoak jarraitu behar dira:

- Muskuloen mugimendua koordinatu, marra zuzenak zein okerrak egiteko eta beharrezkoa denean gelditzeko.
- Indarra, azkartasuna, erritmoa eta arkatzari egoki eusteko kontrola.
- Espazioan kokatu orria zuzen jartzeko.
- Bakoitzaren esku dominantea zein den jakin.
- Letra bidez espresatzeko arazo emozionalik ez edukitzea komeni da.

Bakoitzak espresatzeko modu ezberdin bat izan ohi du eta bakoitzaren letra bere pertsonalidaderen isla izan ohi da askotan. Ez da beharrezkoa haurrek letra perfektuarekin idaztea, piskanaka bakoitza bere letra propioa edukitzea eritsiko da. Baina batzutan denbora aurrera joon ahala, idatzten letrazko letra oso txarra izaten da eta horrek gurasoak eta

irakasleak kezkatu egiten ditu. Haurrak ere eskolan arazoak izan ditzake hori dela-eta. Disgrafia, dislexki ispilidazkera disortografia edo tentsio muskularra dira arazo nagusiak besteak beste.

Arazoa agertu orduko komenigarra da aditu batengana jotzea, baina gurasoek ere lagun diezaiokete haurrari.

- Haurrak ez du derrigorrez beste umeen erritmoa jarraitu behar. Bakoitzak bere gaitasunaren arabera ikasten du eta ez da inor forzatu behar.

- Letra txorrarekin idatziz gero, ez zaie haserre egin behar ezta zigortu ere. Kaligrafia ariketak egitera derrigortzea ere ez da ona. Laguntza da behar duten bakorra.

- Arkatza era egokian hartzen erakutsi behar zaio umeari. Hatzamar luzea ez da sekula gainean (arri behar eta hatzak tentsioan edukitzea ere ez da ona.

- Ongi idazten ikasteko, eguneroko gauza txikietak idazkera erabiltzea ariketa egokia izan daiteke. Esateraka erosketen zerrenda idaztea, etxekoei oharrak idatziz lagatzea...

Letra txarra ez da sekula haurren arazo bihurtu behar onena piskanaka ahalik eta egokien idazten irakastea da bakoitzak ahal duen neurrian eta forzatu gabe. Jolasak metodo egokiak izan daitezke hatzamarrek erabiltzerik ikasteko. Hona hemen hainbat joias ariketa gisa erabiltzeko hatzamarrek margotzea, buztina, plastilina punzoiarekin orriak zulatzea...

Iturria: Ser Padres aldizkaria

Zer iritzi daukazu buruz?



ate4v11 ~ s4(24, v4,4 014, t4+444 Ma./ 2eil aziz 4.444 gegm

A.0 11 4.

MIKEL TADEO, 9 urte



4- 4 m4404 a4eilusilo441 444/1thiLIAA-

SARA MARTINEZ, 7 urte.



Ote441,e4,1 e4A4,14a~,1 k«4441,b44 emt,s,e4 014., 144«,1,444444

44144 11%44210

AN1TON ECENARRO, 14 urte



**IÑARITZ
TEILLERIA**
6 urte

Galde debalde



MIRARI
ALLIZAFAILAGA
13 urte

- 1- Pegatinak, kromoak edo puzzle bat.
- 2- Nocillazkoa.
- 3- Opariekin jolastu.
- 4- Hortzak garbitu.
- 5- "Batman" filmekoa
- 6- "Txanpon baten truke" Alaitz eta Mainerrena.
- 7- Futbola.
- 8- Nire lagun onenari.

- 1- Berak nahi duen zerbait.
- 2- Txorizozkoa.
- 3- Etxean pasatzen dut, erregaloekin jolasten.
- 4- Komunera joan.
- 5- "Solo en casa"-koa.
- 6- Berri Txarrak taldearen "Ikusi arte".
- 7- Igeriketa.
- 8- Lagunei.

Zer da aealead- ~ ?

ILATXL MESIDILIAL 11 URTE



Pozik zaudenean barruan eta kanpoan nabarmentzen duzuna.

ISAAC 13ILLATIJA c3 urte



Futbolean irabaztean edo amak erregalo bat ematean sentitzen duzuna.

GORLA OTERID 11 EJLTE



Pertsona bat pozik bizi denean da alaia, gauzak ondo ateratzen zaizkiolako. Baita milioiduna denean ere.

AITCL AMILILAGA 11 urte



Sentimendu bat. Pozik zaudenean edo zeozer ondo egiten duzunean zeure barruan sentitzen duzuna.

ASILIQ LIZARRALDE IJUTE



Mendian zaudenean eta aire Freskoa dagoenean sentitzen duzuna da alaitasuna.

ALLA MAIS/AISC 11 urte




Zeozer ondo ateratzen zaigunean edo norbait jaiotzen denean barruan sentitzen duguna.

ERANTZUNAK: 1-Korbatak, 2- Zer egingo duzu gabonetako oporretan? 4- Ilargia, alaba eta emaztea bat dira, ixinpartak.

'110.11Z iIL1 OX1U134.109 oia
n.iz!d oloza9 losalloi
Juaa!z oial uoaJaci aun
Japa owop ung

e)inuaz min.iondsa DioN
uaznz woq ru!ti lozi!org
Juagn.pz uol ozinono !z4oJapaci
loaizowe rap6opuas
o4a loiJoylog

-Dijanci
ijaq o!Bachno
Jou.wol zenopz
oflod aiapuo oso —



◀131111151411,pioqza
g nzom

inunzpplusy




„oi inp uege UDIAG9
ale tuezfionzoa zibu
ualool onxie lDWDWO
at!N uleunBoi
znpu uezlepi oJezioluol
upeuep
upelmi oieziuelo
Deloz1 ze !noliea upol
oJesoil o6op opuo,,

10 urte
0113W011 NtiRIOrd

„oJeisrop re8au
oJezweio ziuo ueziaw
cuelol oie znpu uezwcp
upleun6o1 oelose
ecio6 upol oioloye
ijoz ueziolsn6 ovy,,

opn 8

WIIIVVIV91



?

¿g6ip niappe Jaz



omi Dp æz



asmatu! Z10ZO »113513d13.10CILlea



A

ste honetako argazkia **BARRE**neko lankide batek ekarri du. Argazkia 1963. urtean Natibitate Egunean ateratakoa da. Garai hartan dantza saioa egiten omen zuten gabonetan. Dantza hauek gaztetxoei erakusteko ardura Itziar Garciak eta Mari Sol Gurrutxagak zeukaten. Argazkian agertzen direnak honako hauek dira.

Karrozan, **Mari Conchi Zuazubizkar** (San Jose) eta **Kontxi Juaristi** (Amabirgina). Eserita dauden haurrak:

Kristina Garcia, Kontxi Prieto, Ana Artetxe, Jose Ignacio Urkidi, Lorea Iriondo eta **Marga Kastrillejo**.

Karrozaren aurreko dantzariak: Atzean, ezkerretik eskumara: **Rosarito San Martin, Maria Paz Garcia, Mertxe Artetxe, Mari Carmen Agirregomezkorta, Amaia Mujika Larreategi, Amaia Mujika Elorza** eta **Amaia Urkidi**.


Erdian: **Purita Mujika, Maria Luisa Urain, Maria Asun Gabilondo, Amaia Ribero** eta **Mirentxu Juaristi**.

Aurrean: **Iciar Saez, Lurdes Odria, Maria Angeles Gabilondo** eta **Mila Sorazu**.



ESKERTZA

*1999ko abenduaren 13an, 65 urte zituela hil zen **IGNACIO ANDONEGI JUARISTI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





FlActrIcisco
Lutnet

t x
PMartin Luna elgoibartarra da. Iaz, uztailean joan zen Bartzelonara eta gaur egun bertan bizi da. Sukaldaria da Patxi. Hasieran,

Bilbon aritu zen lanean Guggenheim museoko jatetxean eta orain Bartzelonako 'Irati' euskal tabernan dihardu sukaldari lanetan. Bertako girora erraz ohitu dela esan digu Patxi. "Hemen jende euskaldun asko dao, baitxa Eigoibar bertakua ere, eta ez jatan asko kostau hemengo bizimodura ohitzia". Katalanarekin zer moduz moldatzen den ere galdetu diogu eta ulertu ulertzen duela adierazi arren, hitz egiteko oraindik ez omen da gai, "hitz solte batzuk ikasi ditzut baina... Euskeraz ere Elgoibarren baino gehixao itxen dot Bartzelonan". Jatetxe gehienetan bezala 'Irati' tabernan ere opor gutxi izaten dituzte eta dauzkan egun apurrak herrira etortzeko aprobetxatzen ditu. "Astran egun bat libratzen dot eta batzutan aurreko gabian biagia in eta eguna Elgoibarren pasau eta gero gabian bueltatzen naiz. bestela udako oporretan San Bartolomietara etortzeko hartzen ditzut eta negu-kualc gabonetan". Patxi ez daki noiz arte egongo den Bartzelonan, "nik beniz herrira bueltatzia nahi dot". Bitartean, Barteionara joan eta 'Irati' taberna bisitatzen baduzue, jakin bertako jatekoak elgoibartar batek prestatuak direla.

VIAJES BIDAIA
BILBRO EXPTE55
bidaia agentziak
babestutako atala
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 1 2

Pare bat urte baino ez daramazki politikan baina, benetan eza-guna egin da 41 urteko bartar hau. HBko bozeramaile izendatu zutenetik, ezin ukatu bere iritziek eta komentarioek pisu handia dutela, bai Euskal Herrian baita Espainiar Estatuan ere. Horretaz jabetuta, Arnaldorekin egon gara azken asteetako gertakizunei erreparotxiki bat egin diezagun. ETaren su-etenaren amaiera, EHk aurkeztu duen Batzar Eratzailea, abertzaleen arteko harremanak eta beste hainbat gai jarri ditugu mahai gainean.

"Iadtasuiiak gld denuokratEna

ETAren su-etenaren amaieraren berri prentsaren bidez jakin zenuela entzun genuen komunikabide batean

- Su-etenaren aurreko 6 hilabeteetan bake prozesua egoera oso kezagarrian zegoela, behin baino gehiagotan esan genuen prentsaunekoetan. Lehenengo hilabeteetan abiada nahiko polita hartu zuen prozesuak, baina ekaineko Udal Hauteskuncleetan EAJk eta EAk lortutako emaitzen ondorioz, batez ere, bake prozesuak desbideratzen hasteko arriskua zuela sumatu genuen. ETAk ere gauza bera aipatu zuen abuztuan, eta baita azaroran su-etenaren amaiera iragarri zuenean ere. Hata ere, ETAk su-etenaren amaiera iragartzeko aukeratu zuen momentua eta terminoak guztiontzat izan ziren sorpresa bat.

—EHren alde gogorraren iritzia edo postura nagusitu omen da.

Inondik inora ere ez. HB eta ezker abertzalearen inguruan beti egon da literatura kutsu handia. Eta literatura horren bamean gogonaren eta bigunaren arteko ezberdintasuna, Espainiar Inteligentzi Zerbitzuen asmakeria bat dela gogoratzea komeni da. Etsaiaren ezberdintasunak agerian jartzea izan da zerbitzu hauen helburu nagusia. Mahai nazionaleko kideok, egindako apostuarekin bat egiten dugu ordea, talde homogeen bat osatzen dugu, eta milimetro bat aldatu gabe jarraituko dugu orain arte egindako lanarekin.

—ETAk su-etena euskal gizarteari luzatu zion, ezta?

- Bai horrela izan zen, eta dirudienez, euskal gizartea ez da gehiegi aktibatu bi estatuei aurre egiteko. Bestalde, PNV eta EAri marko politiko berri bat sortzeko epelkeri gehiegi egotzi die ETAk. Horiek izan dira su-etenaren amaieraren arrazoiak. Hala ere, prozesuaren aldeko apustua egiten du, baina azken muturreraino koherentzia z segitu behar duela gaineratuz. Prozesua, proposamen zehatz baten inguruan indar berritzea da gure lana, eta ez ETAk nahi duelako, euskal gizarteak behar duelako baizik.

—ETAk su-etenari eutsiko dion esperantza sumatu diogu euskaldun askori. Zein da zure impresioa?

- ETaren esperientzia historikoa ezagututa, gauza bat iragartzen duenean bete egiten duela planteatu izan dugu beti. Hala eta guztiz, ETAk bere komunikatuan ez du esaten irekitako prozesuarekin ados ez dagoenik; prozesu hori 'inpas' batean edo erabaki ezinik dagoela, eta gainditzeko definizio fase baterantz aurrera egin beharra daukala baizik. Bestalde, ETAk Euskal Herri

egia
41
ARNALDO



A

ste honetako argazkia BARREneko Iankide batek ekarri du. Argazkia 1963. urtean Natibitate Egunean ateratakoa da. Garai hartan dantza saioa egiten omen zuten gabonetan. Dantza hauek gaztetxoei erakusteko ardura Itziar Garciak eta Mari Sol Gurrutxagak zeukaten. Argazkian agertzen direnak honako hauek dira.

Karrozan, Mari Conchi Zuazubizkar (San Jose) eta Kontxi Juaristi (Amabirgina), Eserita dauden haurrak:

Kristina Garcia, Kontxi Prieto, Ana Artetxe, Jose Ignacio Urkidi, Lorea Iriondo eta Marga Kastrillejo.

Karrozaren aurreko dantzariak: Atzean, ezkerretik eskumara: Rosarito San Martin, Maria Paz Garcia, Mertxe Artetxe, Mari Carmen Agirregomezkorta, Amaia Mujika Larreategi, Amaia Mugika Elorza eta Amaia Urkidi.


Erdian: Purita Mujika, Maria Luisa Urain, Maria Asun Gabilondo, Amaia Ribero eta Mirentxu Juaristi.

Aurrean: Iciar Saez, Lurdes Odria, Maria Angeles Gabilondo eta Mila Sorazu.



ESKERTZA

1999ko abencluaren 13an, 65 urte zituela hil zen IGNACIO ANDONEGI ILIARISTIren sendiak, bihotzez ES.KERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Patxi PMartin Luna elgoibartarra da. Iaz, uztailen joan zen Bartzelonara eta gaur egun bertan bizi da. Sukaldaria da Patxi. Hasieran,

Flacknaisco MarFirt Luula

Bilbon aritu zen lanean Guggenheim museoko jatetxean eta orain Bartzelonako 'Irati' euskal tabernan dihardu sukaldari lanetan. Bertako girora erraz ohitu dela esan digu Patxi. "Hemen jende euskaldun asko dao, baitxa Elgoibar bertakua ere, eta ez jatan asko kostau hemengo bizimodura ohitzia". Katalanarekin zer moduz moldatzen den ere galdetu diogu eta ulertu ulertzen duela adierazi arren, hitz egiteko oraindik ez omen da gai, "hitz solte batzuk ikasi ditzut baina... Euskeraz ere Elgoibarren baino gehixao itxen dot Bartzelonan". Jatetxe gehienetan bezala 'Irati' tabernan ere opor gutxi izaten dituzte eta dauzkan egun apurrak herrira etortzeko aprobetxatzen ditu. "Astian egun bat libratzen dot eta batzutan aurreko gabian bi ajia in eta eguna Elgoibarren pasau eta gero gabian bueltatzen naiz. bestela udako oporretan San Bartolomietara etortzeko hartzen ditzut eta rieguak gabonetan". Patxi ez daki noiz arte egongo den Bartzelonan, "nik berriz herrira bueltatzia nahi dot". Bitartean, Bartzelonara joan eta 'Irati' taberna bisitatzen baduzue, jakin bertako jatekoak elgoibartar batek prestatuak direla.

ampi.

VIAJES ¹¹¹1111 BIDAIAK
311L3FICI EXPeE55

**bidai agentziak
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Pare bat urte baino ez daramazki politikan baina, benetan eza-guna egin da 41 urteko elgoibartar hau. HBko bozeramaile izendatu zutenetik, ezin ukatu bere iritziek eta komentarioek pisu handia dutela, bai Euskal Herrian baita Espainiar Estatuan ere. Horretaz jabetuta, Arnaldorekin egon gara azken asteetako gertakizunei erreparatu txiki bat egin diezagun. ETaren su-etenaren amaiera, EHk aurkeztu duen Batzar Eratzailea, abertzaleen arteko harremanak eta beste hainbat gai jarri ditugu mahai gainean.

"Zailasunat denuokvallikoa eta

—ETaren su-etenaren amaieraren berri prentsaren bidez jakin zenuela entzun genuen komunikabide batean

- Su-etenaren aurreko 6 hilabeteetan bake prozesua egoera oso kezagarrian zegoela, behin baino gehiagotan esan genuen prentsurrekoetan. Lehenengo hilabeteetan abiada nahiko polita harar zuen prozesuak, baina ekaineko Udal Hauteskundeetan EAJk eta EAK lortutako emaitzen ondorioz, batez ere, bake prozesuak desbideratzen hasteko arriskua zuela sumatu genuen. ETak ere gauza bera aipatu zuen abuztuan, eta baita azaroan su-etenaren amaiera iragani zuenean ere. Hala ere, ETak su-etenaren amaiera iragartzeko aukeratu zuen momentua eta terminoak guztiontzat izan ziren sorpresa bat.

—EHren alde gogorraren iritzia edo postura nagusitu omen da.

- Inondik inora ere ez. HB eta ezker abertzalearen inguruan beti egon da literatura kutsu handia. Eta literatura horren barnean gogorraren eta bigunaren arteko ezberdintasuna, Espainiar Inteligentzi Zerbitzuen asmakeria bat dela gogortzea komeni da. Etsaiaren ezberdintasunak agerian jartzea izan da zerbitzu hauen helburu nagusia. Mahai nazionalako kideok, egindako apostuarekin bat egiten dugu ordea, talde homogeneo bat osatzen dugu, eta milimetro bat aldatu gabe jarraituko dugu orain arte egindako lanarekin.

—ETak su-etena euskal gizarteari luzatu zion, ezta?

- Bai horrela izan zen, eta dirudienez, euskal gizartea ez da gehiegi aktibatu bi estatuei aurre egiteko. Bestalde, PNV eta EAri marko politiko berri bat sortzeko epelkeri gehiegi egotzi die ETak. Horiek izan dira su-etenaren amaieraren arrazoiak. Hala ere, prozesuaren aldeko apustua egiten du, baina azken muturreraino koherentziaz segitu behar duela gaineratuz. Prozesua, proposamen zehatz baten inguruan indar berritzea da gure lana, eta ez ETak nahi duelako, euskal gizarteak behar duelako baizik.

—ETak su-etenari eutsiko dion esperantza sumatu diogu euskaldun askori. Zein da zure inpresioa?

- ETaren esperientzia historikoa ezagututa, gauza bat iragartzen duenean bete egiten duela planteatu izan dugu beti. Hala eta guztiz, ETak bere komunikatuan ez du esaten irekitako prozesuarekin ados ez dagoenik; prozesu hori 'inpas' batean edo erabaki ezinik dagoela, eta gainditzeko definizio fase baterantz aurrera egin beharra daukala baizik. Bestalde, ETak Euskal Herri

ARNA TO TREGI

itzeko, esukal gizarteak benetako apostu nazionala egin behar du"

osorako demokrazia gauzaterik baldin badago borroka armatuarekin amaitzeko erabakia hartuta duela esaten du bere komunikatuan, eta guretzako hori da garrantzitsua. Lehenengo momentutik argi utzi genuen prozesuak gorabehera asko izango zituela. Prozesu honetan Joselu Geresta ETako militantearen hilketan, presoan dispersioa eta errepresioa jaso arren, prozesuari atxekitzeko gaitasuna izan dugu, eta mundu guztiari gauza bera eskatzen diogu momentu honetan. Izan ere, inork ez du nahi bake prozesua eteterik, inor horren baitan ETA ere sartzen dut nik. Baina zailtasunak gainditze-

"Balzar eralzailearen belbtrua, Euskal Herri osorako, hasi Atirribit eta Ebrorato, euskaldun guztiarentzat eta euskaldun guztion artean egindako marko juridiko-politiko berri bat osalzea da".

ko, euskal **gizarteak benetako apostu demokratikoa eta nazionala egin behar du.**

—**Gaia aldatuz, esaiguzu bi berbatan zer den larunbatean aurkeztu zenuten Batzar Eratzailearen proposamena?**

- **Batzar eratzailearen helburua, Euskal Herri osorako, hasi Atirribit eta Ebrorato, euskaldun**

guztiarentzat eta euskaldun guztion artean egindako marko juridiko-politiko berri bat osatzea da. Proposamenaren funtsa zera da: Euskal Herri osoa hartzen **duela** sujetu politiko gisa. Euskal gizarteak, kulturalki ezberciatua den herria izanik, globalizazioaren atarian nola biziraun behar duen, eta globalizazio ekonomikoak sorturiko arazo sozialei eta ekonomikoek nola aurre egin nahi diren erabaki behar du. Eztabaida hori burutzeko, ez dugu gobernu eta parlamentu nazionalik, beraz, hori osatzeko kaleratu dugu gure proposamena.

—**Gaur egun ezinezkoa den zerbait proposatzen ari zaretela aipatu da han eta hemen.**

Batzuk esaten dute gure proposamena irreal dela. Euskal henitar guztiak kontutan ez hartzea leporatzen digute, baina hori nahiko argudio kuriozkoa iruditzen zaigu. Guretzako euskaldunak Euskal Herriari bizi eta lan egiten duten guztiak dira. Aipamen berezi bat egiten dugu indar armatu okupatzaileekin, goardia zibilak ez dira euskaldunak eta. Guk planteatzen ditugun hauteskunde libre eta demokratikoetan euskaldun guztiak dute parte hartzeko eskubidea. Ez dira hauteskunde abertzaleak, guztiz irekiak eta euskaldunak baizik.

Beraz, aukera politiko guztiek dute Batzar Eratzailean parte hartzeko eskubidea.

EAJ-PNVk bere proposamena aurkeztu zuen duela pare bat aste, EAK ere garbi laga du berea, eta zuek ere jarri duzue mahai gainean zuena. Ez al dago proposa-

men askotxo euskaldunok hain gutxi izanda?

Euskal Herriak dituen arazoei aurre egiteko alderdi bakoitzak bere proposamena egin behar dio euskal gizarteari. Baina ez alderdi abertzaleek bakanik, desiatzen gaude beste alderdien proposamenak entzuteko, are gehiago, hortara animatu nahi nituzke. Gero, ikuspegiak parekatuko genituzke eta posible balitz, azken asmoa proposamen bateratu bat egitea litzateke. Beti ere, Euskal Herri osorako eta subiratasunaren inguruan egindako proposamenak badira. Une honetan, bake prozesua, proposamenak mahai gainean jartzeko fasean geldirik dago, eta guztiz positiboa izango litzateke 2.000. urtea proposamen ezberdinen inguruko eztabaida batekin hastea. Azkenik, gure herriarentzat proposamen onena zein den erabaki ahal izateko.

—**Independentziaren inguruan jarrera ezberdinak azaldu dituzte Arzalluzek eta Anasagastik. Euskaldunok Maltzagaraino batera joateko aukerarik llusten al duzu?**

Beste alderdi abertzaleak kritikatzeko ez dut gustuko, baina PNVk funtsezko arazo bat izan du 100 urtetan zehar. Izan ere, Madril edo Paris konbentzitu Euskal Herriko arazoak konpondu daitezkeela uste du Madril inguruan dabilen PNVko sektore batek. Baina sekula ez ditugu konbentzitu. Asmo horretan, bertako komunikabideetatik espainiar gizartearen konbentzitu nahi dutenean, independentzia bezalako hitzak erabiltzea ez zaie egokia iruditzen eta hori gertatu zitzaion Anasagastiri. Ezker abertzalea, edozein tokitan egonik ere, gauza berdinak esatearen aldekoa da, politikoki serioagoa iruditzen baizigau.

—**Lasa eta Zabala auziari aste honetan ekin diote. Argituko al da inoiz GALen atzean benetan zein zegoen?**

GAL kasua Estatu afera bat da eta Espainiar estatuak ez dio bere buruari harakiria egingo. Justizi espainiarrak zerbait egingo duela espero dugun arren, lotsagarria da Elgoibarko presoek, 3/4ak beterik izanik, kartzelan jarraitzea. Galindo, berriz, 2 hilketan leporatzen zaizkion arren, kalean dago.



Goi mailako 10 jokalarari ari dira parte hartzen Nazioarteko IL Xake Txapelketan

Astearte iluntzean (hilak 21) argituko da irabazlearen izena

Jian den astelehenean, Jhilarren 13an, eman zitzaion hasiera Elgoibarko Nazioarteko 9.Xake Txapelketari. Eguerdian, aurtengo edizioaren aurkezpena egin zen kultur Etxean. Jose Antonio Urbietak (Zubi-Ondo Elkartearen presidentea), Gillermo Garate alkatea, Migel Angel Muela (Euskadiko Xake Federazioko presidentea) eta txapelketan parte hartzen ari diren nazioarteko 10 jokalaririk izan ziren bertan. Txapelketak Ilko maila dauka eta maisu handi kategorian duten honako 6 jokalaririk ari dira parte hartzen bertan: Felix Izeta (2505 ELO, eta Elgoibarko txapelketako irabazlea izandakoa) eta J.L. Fernandez euskaldunak, P. Sansegundo espainiarra (2510 ELO), Oleg Korneev errusiarra (2615 ELO, Malaga, Balentzia, Bergara eta Elgoibarko txapelketak irabazi ditu, besteak beste), Elizbar



Argazkia txapelketaren aurkezpen egunean ateratakoa da. Partehartzaileak eta antolatzaileak agertzen dira bertan.

Ubilava georgiarra (2556 ELO, Georgiako selekzio olinpikoko kidea eta Elgoibarko txapelketa behin baino gehiagotan irabazi duen xake jokalaria) eta Vladimir Georgiev bulgariarra (2519 ELO, Bulgariako selekzio olinpikoko kidea eta bere herrialdeko txapelketa gazte maila guztietan). Gainontzeko 4 xake jokalariek maisu internazional maila dute, bai

na maisu handien mailatik oso gertu dabilta ia denak. Honako hauek dira: Mario Gomez santurtziarra (2476 ELO), F. Javier Sanz espainiarra, Antonio Fernandes portugaldarra (2438 ELO) eta Vladimir Lazarev errusiarra (2501 ELO).

Ikusleentzat atea irekita

Txapelketa, liga moduan jokatuko da eta 9 jardunaldi izango ditu. Txapelketaren izena abenduaren 21ean argituko da, eta bien bitartean, egunero 16:00etatik aurrera jokatuko dira partidak Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Partidak ikustera joan nahi dutenek, atea irekita izango dituztela adierazi digute antolatzaileek, "herritarrek goi mailako xake partidak ikusteko aukera aparta dute, eta bide batez xakeari buruzko hainbat gauza ikas ditzakete, izan ere, xalkelariak partidaren amaieran egindako mugimenduak aztertzen dituzte askotan".

KIROL ALBISTEAK

• Gaztetxoentzako Xake Txapelketa

Eskola Kirola programak gaztetxoentzako Xake Txapelketa antolatu du. Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako jokalariek parte hartu ahal izango dute datorren domekan, ekainaren 19an, Zubi-Ondo Elkartearen (Jausoro Plaza, Santa Klara) jokatuko den txapelketan. Partidak goizeko 10:30ean hasiko dira eta txapelketaren egunean eta Iekuan bertan egin daiteke izen-ematea.

• 4 jokalarari elgoihartar konbokatatu ditu Gipuzkoako areto futholeko selelaioak

Gipuzkoako areto futholeko selekzioak Zur Ta Lur taldeko 4 jokalarari elgoihartar konbokatatu berri ditu. Jubenil mailako Gipuzkoako selekzioak Santi Fernandez eta David Garrido deitu ditu, eta 21 urtez azpiko selekzioak, berriz, Gorka Arrillaga eta Roberto Gordon. Mikel Leon jokalaria ere deitu zuten, baina lesionatuta dagoenez ezin izango du selekziora joan.

Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak Muskizko krosean izan dira



Urtero bezala, Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak Muskizko Heni Krosean izan ziren, pasa den abenduaren 13an. Guztira 30 korrikalari elgoihartar joan ziren Bizkaia aldera eta fin aritu ziren. Izan ere, kategoria bakoitzeko Iehen 5 sailkatuek jaso zuten garaikurrak gain, Mintxetako taldeak lehen saria eskuratu zuen mutilen partaidetzari zegozkion emaitzak batuz eta hirugarren saria nesken emaitzak batuz. Emaitzarik onenak Iortu zituzten korrikalariak honako hauek dira:

- Unai Cabo 1. postua (Benj. mut.)
- Borja Diez 2. postua (A. benj. mut.)
- Aitor Arrese 4. postua (Benj. mut.)
- Lara Urain 4. postua (Ale. nes.)
- Antton Alberdi 4. postua (Inf. mut.)
- Olatz Txurruka 5. postua (Ale. nes.)

Aitor Garitagoitia ehiztari elgoibartarra Eagskadiko oillagorretako txapelkun berria da

Urtarrilaren 8an, Zaragozan izango den Espainiako Txapelketan parte hartuko du

Duela pare bat aste Gipuzkoako Oilagor txapelketa irabazi zuen Aitor Garitagoitia ehiztari elgoibartarra. Garaipen honi esker, pasa den asteburuan Nanelares de la Ocan (Arabian) jokatu zen Euskadiko Oilagor Txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen. Malla handiko ehiztarietako parte hartu zuten txapelketan, baita Patxi Arriola elgoibartarra ere, (iazko txapelduna eta 3 aldiz Espainiako txapelduna izandakoa). Hala eta guztiz, Aitor bilcain aritu zen eta berak



Aitorrek eta bere txakurrak bi oilagor bota zituzten eta Euskadiko Txapelketa irabazi.

jantzi zuen txapel preziatua bi oilagor bota ostean. "Bi oilagor bota eta kontrolian sartu nitzanian ez nakan oso argi irabaziko nabarik, maila altuko ehiztarixak zaozen-eta. Bukaeran ordia, bi piezakin nahikua izan


zan eta txapela etxera ekarri dot". Orain, Rey del Sos Catolico Zaragozako herriko jokatuko den Espainiako Oilagor Txapelketarako prestatzen hasi da Aitor. Txapelketa urtarrilaren 8an izango da.

Dani Arenas finaletik kanpo

Bestalde, Dani Arenas elgoibartarra ez zuen zorte gehiegirik izan Ehi-za Xeheko Espainiako finalerdietan, eta ez zuen finalerako sailkatzerik lortu. Sorian jokatu zen txapelketa eta lehen bost sailkatuek eskuratu zuten finale- rako txartela. Tamalez, Danik seigarren postua lortu zuen eta finaletik kanpo geratu zen. Dena den, urte bikaina burutu du aurtan Dani gazteak eta Euskadiko Ehiza Xeheko txapelduna dela gogoratzea komeni da.

Ibai Kirol Elkarteko judoek 5 domina irabazi dituzte Iruñea eta Urrietako txapelketetan

Aitor Gonzalez eta Jon Ander Pascual judoka gazteek, Umietako Hiria judo txapelketan parte hartu zuten duela pare bat aste. Getariako, Zarautzeko, Irungo, Andoaingo, Usurbilgo eta Elgoibarko 150 judoka lehiatu ziren txapelketan, eta bi elgoibartarra bikain aritu ziren bakoitzak bere mailan. Aitor Gonzalezek urrezko



Argazkian dominak irabazi dituzten Ibaia Klubekijudokak ageri dira.

domina lortu zuen eta Jon Ander Pascual ere ez zen esku hutsik itzuli, zilarrezko domina eskuratu baitzuen. Biak dira pisu gutxiko judokak, baina teknika oso ona dutela erakutsi zuten, eta aurkakoak erraz hartu zituzten menpean.

Bestalde, Ibaia Klubeko gainontzeko kideek Iruñeako Nazioarteko Judo torneoan hartu zu-

ten parte, eta baita emaitza apartak lortu ere. Torneoa Larramendi kiroldegian jokatu zen eta Ibaia Klubekoek 3 domina ekarri zituzten Elgoibar aldera. Egoitz Morak urrea irabazi zuen 90 kiloz azpiko kategorian eta Zuriñe Polok eta Josu Idiakezek, berri- z, brontzezko dominak irabazi zituzten infantil eta jubeni- lan mailetan hurrenez hurren. Maria Idiakezek, Xabi Gonzalezek eta Riki Alvesek ez zuten dominarik irabazi, baina hirurek 5. postuan geratu ziren. Infantil, kadete, jubeni- lan eta junior maile- tako 400 judoka izan ziren Iruñean, tartean a- s- turiarrak, madrildarrak, frantziarrak, aragoarrak eta errioxarrak.

E AITZAK	
Futbola	
Haundi 0- Cultural de Ourango 0 (3. maila)	
Pedrusko 3 - Elgoibar 2 (1. erreg.)	
Aretxabaleta 0- Elgoibar 4 (Jub. E.L.)	
Eibartarrak B 0 - Elgoibar 6 (0. inf.)	
Elgoibar 13 - Almen 1 (Neskak)	
Moulinex 1- Zur Ta Lur 7 (Auton.)	
Gen tro Extremerio - Zur Ta Lur (1. maila)	
Es kubalota	
Gaur Elg. 26 - Bergara 18 (Kad. mut.)	
Almen Jakion 17- Tecnomeka Elg. 25 (Kad. Mut.)	
Pagoaga Elg. 24 - G. Amenabar 15 (Kad. nes.)	
Pneumax Elg. 30 - Egia Joggers 16 (Jub. mut.)	
Unceta Elg. 31 - C. Amenabar 14 (Jub. nes)	
Urola 11 - I.M.H. Elg. 40 (Senior mut.)	
I.M.S. Elg.17 - San Adrian 14 (Sen. Nes.)	
Saskibaloi	
Elgoibarko S.T. 60- Zumaiako 58	
Pilota	
E. Ulazia/0. Arizmendi 22 (Lagunak)	
Vianalesmes 9 (Beloki)	
Idarraga Kafeak 3. saria	
HAUNOIKO jokalarierregularrena 99/00	
JOKALARIA PUNTUAK	
1- Aranberri	29
2- Zulaika	28
3- Castro	25
4- Polo	21
5- Alberdi	14
6- Bravo	13
7- Diaz	13
8- G. Leonardo	12
9- Ibarluzea	11
10- Ioren	10
11- Castillo	8
12- Guarrotxena	6
13- Baml	6
14- Manolo Ramos	4
15- Alcorta	4
16- Txasio	4
17- Caro	4
18- Edu	4
19- Ruiz	2
20- Fernandez	2
AGENDA	
Futbola, Mintxetan	
Larunbata, 18	
15:00 Elgoibar- Antzuola (2. kad.)	
17:00 Elgoibar - Kilimon (1. erreg.)	
Igandea, 19	
12:00 Elgoibar - Real Sociedad (0. Kad.inf.)	
Es kubaloi, Kiroldegian	
Larunbata, 18	
16:00 Teknomeka Elg. - Loiola (Kad. mut.)	
17:30 Pneumax Elg. - Almen (Jub. mut.)	



Olaso, 23 • 943 74 20 37

Luziano eta bere semearen koadroak daude ikusgai Kultur Etxean abenduaren 19ra arte

Erakusketa honekin bere emazte zena omendu nahi du margolari elgoibartarrak

Luziano Ruiz Poveda margolari elgoibartarraren azken koadroak datt-de ikusgai Kultur Etxean abenduaren 3tik. Horrekin batera, bere semea den Miguel Ruiz Povedaren margolanak ere ikus dadezke erakusketa honetan. Izan ere, aitak azaidu duenez, eraketa honetan bere certr>rr estraineko aurkeztu da Elgodun Ten pintore be-~da.



te zuen herrian, nire seme Migelekin batera egindako erakusketa hau eskaintzea da bera gure artean sentitzeko modu bakarra" adierazi du Luzianok.

Margolari elgoibartarrak hitz ederrak ditu bere andrea izan zenarentzat. "Urte askotan Carmen izan zen nire bizitzan izan dudana animatzaile handia. Carmen emakume xumea izan zen beti, alaia, langilea eta edozein unetan laguntzeko prest zegoena. Besteentzat bizi zen eta une txarretan, bere irrifarreak margotzen segitzeko kemena ematen zidan; Picasso, Zuloaga edo Van Gogh ikusten baitzituen nigan, nahiz eta bera pinturan aditua ez izan".

Egañak,, Lizasok, Irazuk eta Lujanhi&:, jardungo dute gaur Herriko Antzokian

Eigoibarko Izarrak Gabon inguruan urtero antolatu ohi du Bertso Jaialdia

Gaur ostirala, hilak 17, Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso saioa izango da Herriko Antzokian, gaueko 22:30ean. Jaialdian abestuko duten bertsolariak Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio izango dira. Urtero bezala, Gabon jaien bueltan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatzen duen bertso jaialdia da honakoa. Aurten goan beste urtetan baino lehenago egingo da. Izan ere, antolatzailleek egun honetan jarri behar izan dute beste datarik ez zegoelako: hurrengo ostiralean, hilaren 24an, Gabon gaua da eta hurrengoan, abenduaren 31n Gabon Zahar eguna.

Igandean, abenduaren 19an Gipuzkoako Herri Arteko finalean Bertsolari Txapelketako izango diren bi finalistaren bertsoak entzun ahal izango dituzte Herriko Antzokira gerturatzen diren bertsozaleek. Aurten Gipuzkoako Txapelketa taldeka jokatzen ari da eta finalera Zarauz Jai-txiki eta Erniope taldeak iritsi dira. Talde hauetako bakoitzak Elgoibarren abestuko duten bertsolari bana dauka: Erniopek, Jesus Mari Irazu eta Zarauzko taldean Andoni Egaña dago. Beraz, jaialdiak bi finalisten entrenamendurako balio ahal izango du.

aust:calak

"sonao Sapiens?" Su Ta Gar eibartarrek argitaratu duten seigarren diskoa dugu. Disko berria, diskete berria (lehen 'Esan Ozenki', orain 'Gor') eta makina bat kontzertu, Taldearen estreinako bi maketak CD eran berrargitaratzea, gerora etorriko zenaren arrastoa besterik ez zen izan. Disko berriak eibartarren heavy doinu eta erritmo indartsuenak berreskuratzen ditu.


Hitzak, ohi bezala, euskal gizartearen eta politikaren inguruko aldarrikapenak dira. "Homo Sapiens" abestiak doinu eta erritmo gogorren bidez moda eta estereotipoak kritikatzeko, norberaren izakera aldarrikatuz. "Geroaren hazi heziak" eta "Bada itxaropena" dira heavy korrontearen adibide garbiena. k; bonbo bikoitzairen azkartasuna eta estribilo melodiakoak dira nagusi. "Zai, hago zai" indartsuarekin, berriz, Aitor Zabaleta realzalearen hilketa gaitzesten dute eibartarrek. Hasiera lasaia badu ere, bukaeran izugarriko energia igortzen duen horietakoa dugu "Beti aurrera". Azkenik, "Zure albofik unun banago" maitasun kantak arnair ezinhobearen ematen dio diskoari. Trash-metal ikutua mantenduz, lan honekin 80. hamarkadako heavy estilora hurbildu da berriro Su Ta Gar. Ezbairik gabe, sus-traiei gogor eutsiz grabatutako disko kaina dugu "Homo Sapiens?".

Ion Gurrutxaga



BERTSO JAIALDIA

A. Egaña
S. Lizaso
M. Lujanbio
J.M Irazu



Antolatzailea:



KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA



FORU ALDUNDIA

Abenduak 17, ostirala
gaueko 22:30ean
Herriko Antzokian

III. Urteurrena



Wex Au.ocia (ZccaPAW)

1996ko aberilcuaren 16m hil
zen 26 ur te


*Ohi den gisa zaila izan zen
agurraren tenorea.
Beti ez dugu izaten
nahi genukeen adorea.
Gure artean hutsune bat da;
guztiz hutsik ez ordea...
'Beti-arte"ko itxaropenez
adio adiskidea.*

Z ure kuadri 1 akoak



I. URTEURRENA

*1998ko abenduaren 18an hil zen
MARIA JESUS BILBAO MARCOSen oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.*



INTERESEHO

T K

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak . . . 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantha) 943 464622
 Gurutze Gorria . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (Eibar) . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua. 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala... 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxota 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
 Zaharren Hiltokia 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola . 943 74 21 41
 HHI (EPA) . . . 943 74 08 80
 Herri Eskola .. 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco ... 943 74 40 73
 El Correo Español. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia . 943 74 34 74

17 ostirala

22:30 BERTSO JAIALDIA
 A. Egaña, S. Lizaso, M. Lujanbio eta J.M Irazu
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
 22:30 MAGIA SAIOA
 Gaztetxean

18 larunbata

11:00 JAIOTZEN XIII. LEHIAKETArako IZEN EMATEA
 Ubitarteko Katekisten jokalean
 Eguediko I3ak arte
 12:00 ZAZPIKIRen BATZARRA
 Ganbaran
 19:30-22:15 ZINEA
 "Proyecto bruja Blair"
 20:00 KONTZERTUA
 Taldeak: Uler eta Zein

Igan 9lea

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
 "Vaya un fugitivo"

19:00 ZINEA
 GAZTETXEAN
 "La vida en obras"

19:30-22:15 ZINEA
 "Proyecto bruja Blair"

2 asteleena

20:00 ELGOIBAR DANTZAN LIBURUAREN AURKEZPENA
 Udaletxeko Pleno Aretoan
 22:15 ZINEA
 "Proyecto bruja Blair"

21 astearte

19:00 BILERA INFORMATIBOA GURASOENTZAT
 Mekanikan
 19:30 JAIOTZAREN INAUGURAZIOA
 Leku-Ederreko parkean

22 asteazkena

15:00 IMANOLEN KONTZERTUA

Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 DEBABE Euskaltegia

18:00 MUSIKA
 ESKOLAKO GABONETAKO KONTZERTUA
 San Bartolome Parrokian

23 osteguna

19:00 MORKAIKO M.T.ren ARGAZKI ERAKUSKETA
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Morkaiko (hilaren 31ra arte)
 19:30 ZIKLOTURISTEN BILERA
 Gaia: Datorren urteko irteeren egutegia
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Lagun Taldea

24 ostirala

11:00 OLENTZERORI ONGI ETORRIA
 Madalan
 Antolatzailea:
 Atxutxiamaika B.T.
 19:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA eta GABON KANTAK

11 NE A



Zuzendaria: Daniel Myrick eta Eduardo Sanchez.
 Antzezleak: Heather Donahue, Michael Williams, Joshua Leonard.

The Blair Witch Project

Pelikula hau ez da gainontzekoak modukoa. Pelikula bat denik ere ezin daiteke esan, izatez dokumental 'faltsu' bat baita. Hiru ikaslek Black Hill izeneko basoan desagertu aurretik egin zituzten ikerketen berri ematen digu beldurrezko pelikula honek. Kamera bat eraman zuten beraiekin, eta basoan galdu ostean, basoko bakardadean sentitzen zuten beldurraz jabetzeko balioko digute grabatu zituzten irudiek.

• Ekloturisten bilera irteeren egutegia zehazteke

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari elkarteak zildoturista eta mirrinduzale guztiak animatu nahi ditu datorren ostegunean, abenduaren 23an Kultur Etxean egingo den bilerara azaltzeko. Bileran honetan, hurrengo urtean asteburuetan egingo dituzten irteeren egutegia zehaztu nahi dute. Bileran arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

• Gabonetako jaiakha abenduaren 22m Pdas ikasteixean

Datorren asteazkenean, abenduaren 22an, Gabonetako jaialdia egingo da Pilar Ikastetxean. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da egitaraua eta denetarik egingo da: abestiak, antzerkiak, dantzak... Saio ezberdinetan ikastetxeko ikasle guztiek hartuko dute parte. Ikasleen gurasoak eta elgoibartar guztiak gonbidatuta daude jaialdira. Jaialdi honekin lehenengo hiruhilabetea eta urtea agurtuko dituzte Pilar Ikastetxean. Bide batez, "Gabon zoriontsuak" eta "Urte berri ona" opa nahi dizkiete denei bertako irakasleek.

Leloe'ren mendi biteera

Leike'ko Mendi Taldeak larunbat honetarako, hilaren 18rako, Botreaitzera mendi irteera antolatu du. Irteera goizeko 9:00etan izango da Estazioan. Bidaia egun erdikoa izango den arren, janari piska bat eramatea gomendatzen da. Irteera hau autoz egingo da, beraz, autoa daukanak badaezpada autoarekin azaltzea eskatzen da.

• Parroldako jalotzaren inaugurazioa

Datorren asteartean, abenduaren 21ean Parrokiako jaiotzaren inaugurazio ekitaldia izango da Leku-Ederreko lokalean arratsaldeko 19:30ean. Behin irekita, jaiotza abenduaren 22tik urtarrilaren 17ra arte egingo da ikusgai. Ordutegia honakoa izango da: astegunetan 17:30etik 20:30era. Jai egunetan eta bezperetan goizez 10:30etik 13:30era egingo da zabalik eta arratsaldez 17:30etik 20:30era. Egun berezia denez, Gabon Zahar egunean atsedetik gabe goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara irekiko dute.

• Bihar bukatzen da Morkaikoko Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea

Morkaikoren V. Argazki Lehiaketa elgoibartarrei zuzendutaldea da, baina Elgoibarkoak ez direnek ere hartu dezakete parte Morkaiko Mendi Elkarteko bazkide badira. Gaia mendia da eta nahi den neurriko argazkiak aurkez daitezke, koloretan nabiz txuri-beltzean. Gehienez 4 argazki onartuko dira. Argazkiak Morkaiko Mendi Elkartean entregatu behar dira. Epea bihar, larunbata, abenduak 18 bukatzen da. Argazkien atzekaldean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da. Abenduaren 23tik 30era argazkien erakusketa egingo da Kultur Etxean.

Gabonetako kontzertuak

Gabonak datozela-eta, musika emanaldi ezberdinak izango dira. Igande honetan, hilak 19, Udal Musika Bandak joko du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30ean. Asteazkenean, hilaren 22an, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Parrokian arratsaldeko 8:00etan. Kontzertu honetan Hari Taldea, Akordeoi Taldea, Gazteen Banda eta Musikeskolako txistulariak eta dantzariak arituko dira. Horrez gain, Kantu Korala entzuteko aukera izango da. Azkenik, ostiralean, hilaren 24an, Udal Musika Bandak Gabon eguneko kalejira egingo du arratsaldeko 7etan.

Magia saioa, kontzertua eta zinea astebukaeran Gaztetxean

Gaur, ostirala, "Txan Handia" magoarekin magia saioa izango da Gaztetxean gaueko 22:30ean. Bihar larunbata, hilak 18, berriz, kontzertua eskainiko dute Uler 600 eta Zein (lehengo Amasay taldekoak) taldeek. Asteburuko ekitaldiak amaitzeko, ohi bezala, zinea izango da igandean. Oraingo honetan J. Becker-en "La vida en obras" filmea egingo da ikusgai arratsaldeko 19:00etatik aurrera.



• 'Elgeibar Dantzani liburuaren aurkezpena

Haritz Euskal Dantzari Taldeak 'Elgoibarko Dantzani' liburuaren aurkezpena du datorren astelehenean arratsaldeko 20:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan. Liburuak gure herriko azken lau mendeetako dantza tradizioa jasotzen du.

• Guraseentzat bilera informatiboa Mekanikan, asteartean

LOGSE Batxilergo 2. mailako ikasleen orientaziorako bilera informatiboa egingo da gurasoentzat abenduaren 21ean Ezenarro Institutoko Areto Nagusian (Mekanikan). Ikasleen formakuntzarako garrantzia duten gaiak landuko dira. Bileran arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

[11/11 12

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
18	Bidasolo*	Zabaleta
19	Bidasolo*	Zabaleta
20	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
21	Escala	Escala
22	Bidasolo	Bidasolo
23	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
24	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	

*(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

19 igandea Idarraga

Lana



• KSK4INTZ

• Ume bat zaintzeko autoa duen neska bat behar da. a 943 74 09 45 (Arrate)

Tabeman lan egiteko neska bat behar da. er 943 74 18 24

• Neska euskalduna behar da arratsaldez ume bat zaintzeko. er 943 74 37 97 (20:00etatik aturera deitu)

• Goizez bi ume zaintzeko ernakume euskalduna behar da. fr 943 74 10 57

• Elgoibarko enpresa batek informatika teknikaria behar du. te 943 74 08 50. Faxa: 943 74 29 16

• 25 eta 35 urte bitarteko janari banatzailea behar da, Gidatzeko karneta izatea beharrezkoa da. lz 943 74 46 63 (21:00-22:00 deitu)

• Emakume edadema zaintzeko pertsona behar da. tr 943 74 03 70

• ESKAERA•

• Azaroaren 26an katu siamesa aurkitu nuen Erretxindi inguman. re 943 74 44 73

• Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. tr 943 74 29 73 (Andone. Goizez deitu)

Bestelakoak



• 9 hilabeteko Kollië- artz_ ai txakurkume alemana oparitzen dut. irr 606 05 65 48 (Sara)

• Eratzuna galdu dut Santa Klaratik King-kongera bidean, E iniziala dauka idatzita. sa 943 74 36 89

• Larruzko txaketa beltza aldatu zidan norbaitek Azkena dantzalekuan. Nirea hartu zuenari eskertuko nioko itzuliko balit. tr 656 74 97 10

• Setter arrazako utakur zuria galdu nuen, hilaren 10ean, San Antolinen. mr 943 74 11 79

• Flaren 10ean, Madalatic Donna ileapaindegira bitartean belarritako bat galdu nuen. Urrea, urre zuria eta 5 brillante txiki ditu. tr 943 74 09 42/943 74 35 50

• Udaletxean erosketetako karro bat agertu da. Galdu duenak bertara jo dezake bila.

• Umearen txamarra galdu dut Le-ku Ederren. Zuria eta berdea da. a 943 74 27 89 (Mari Carmen)

• Urrezko pultsera galdu dut. Plakan Edume izena dauka idatzita. tr 943 74 08 61

OHARRA:

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direta gogorarazten dizuegu.

Etxebizitzak

• Pisua salgai Santa Ana kalean, 10. zenbakian. Guztiz berritua dago. a 943 74 05 14/ 626 23 75 70

• Ileapaindegia alokatzen da Mendaron. a 943 75 50 73.

• Anzoko tabema alokatzen da traspasorik gabe. a 649 60 46 66 (19:00(etatik aurrera deitu)

• Etxea salgai Muguruza kalean. a 943 85 08 92

• Pisua behar dugu alokairuan. Txikia eta ahal izanez gero altzariek in..er 943 74 30 67 (13:30 etik 15:30era bitartean)

Agurrak

• Zorionak lone L,oiolari, azaroaren 30ean, urteak bete zituelako. Itsaso Alguacilen eta Alazne Escuderoren partez. Barkatu berandu zoriontzeagatik.

• Zorionak Albari, hilaren 10ean, urteak bete zituelako. Bere nobioaren partez.

• Zorionak! Berandu izan arren, zorionak Ainhoa. Ikastolako DBH1 mailako partez.

• Zorionak Maria Luisa San Martini, hilaren 12an urteak bete zituelako. Ibareren eta Leireren partez.

• Zorionak Maialeni, hilaren 9an, urteak bete zituelako. Melanyren, Kevinen, Dorletaren eta Iriaren partez.

• Zorionak Urko Sanchez, gaur, hilak 17, 14 urte bete zituelako. Etxekook egun zoragarria pasa dezazula opa dizugu. Zorionak baita ere Madrileituen partez, orain arte bezain alai eta bromista jarrai dezazula. Musu handi bat

• Zorionak Maria Arrietari, abenduaren 19an, urteak beteko zituelako. Ikastolako 5. mailako partez. Ondo pasa eguna.

• Zorionak Iosu Garitagoiari, hilaren 8an 11 urte bete zituelako. Ahizpa Ainhoaren eta Rsaroren, ama Kontxiren eta familiaren partez.

• Zorionak Aitor Garitagoitiari, ehizan Euskadiko txapeladuna izan delako. Lehengusuen eta izebaren partez.

• Zorionak Oibane Osorori, abenduaren 12an, 12 urte bete zituelako. Pilarreko DBH1eko nesken partez.



• Zorionak Paula eta Anget! Ekarri bihar sobratuko zaizuen tarta zatitxo bana. AEK euskaltegiko zuen lagunak.



• Zorionak zuri gaurko egunez. 19 urterekin urnore ucarrak alde batera utzi eta hori ospatzeko (urteguna eta umorea) pastelak

ekarriko dituzun esperantzaz, zorionak gure partez.

• Zorionak Iskanderri, atzo, hilak 16,4 urte bete zituelako. Familiaren partez.



*Aupa ocapeldun! Zorionak Koldo, hilaren 14an 10 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki Itziañen partez,



• Zorionak Eiderrri, hilaren 22an unebete egin-go duelako. Gurasoen eta lagun Sarayren partez, musu handi bat.




• Zorionak Enerilz Lopezi, gaur, hilak 17, 4 urte beteko zituelako. Familiaren eta bereziki anaia Arkaitzen eta lehertegusina Eiderren eta Sarayren partez.



• Zorionak zure urtebetetzean, Miriam. Koadrilako partez. Berandu baina seguru.




• Zorionak Unai Usobiagari, bihar 7 urte beteko zituelako. Zorionak baita ere osaba Tomasi, hilaren 23an, urteak beteko zituelako. Familiako partez.



• Zorionak Mainer Lazkaneri, gaur 7 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki ahizpa Nerearen partez, Ondo pasa eguna!



• Ander Osorori zorionak atzerapen piskatekin, 8 urte bete zituelako. Aitxixa Sabinen eta familia-kuon partez.




• Zorionak Ignaciari, astelehenean, hilaren 13an, 4 urte bete zituelako. Musu handi bat gurasoen eta bereziki bere

anaia Borjaren partez.

• Zorionak Aitanari, hilaren 13an, 3 urte bete zituelako. Familiako partez.



• Zorionak Mart Frani eta Fernando, gaur, urteak bete dituztelako. Estibalizen partez. Zorionak Marian Martini, hilaren 19an, urteak beteko zituelako. Senarraren, arnaren eta alaba Ainhoaren partez.



• Zorionak Iban Herviasi, bihar, 5 urte beteko zituelako. Gurasoen, aitita-atnosen eta arreba Nerearen partez.



*Zorionak Nerea Machado, gaur, hilak 17, urteak bete dituelako. Gurasoen eta Albertoren partez.



• Zorionak Ander! Gurasoen, familiaren eta lagun guztien partez. Ondo pasau igandean!



• Zorionak Itxasori, hilaren 15ean 4 urte bete zituelako. Musu handi bat Joanaren, amatxoren eta aitaaxoren eta bereziki aitxixa Jose Mariren, Oluren eta Titoren partez.

Olentzeroren zaku a



ASTIGARRAGA KIROLAK

BAZAR DESDE 100

CO₂ JANTZIDENDA

ABARKA ZAPATADENDA




ECENARRO MERTZERIA

FERPI ZAPATADENDA

IKUS OPTIKA

IRIONDO KIROLAK




KARKIZANO MERTZERIA

LETE JANTZIDENDA

LUVIK ZAPATADENDA



LEIZABE ELEKTRIZITATEA



OSORO ZAPATADENDA

SARA JANTZIDENDA

SKANDALO LENTZERIA


UZURI OPTIKA



ronromon rōn nn nnTrn
rnuo I ouLow

nT7rTo/ nnyvnoo TIn
n 111 up oLo ouou Lo Of

ovrnrom o onr nn oro/Tonnn
nuo 00_0'o Luomo_uuuLo ouurk



HYUNDAI ACCENT


AIRE GIROTUA OPARI EDO BALIO'

BEREKO DESKONTUA
*1,381.000 pta.tik AURRERA
(8299,98 EURO)

HYUNDAI LANTRA

AIRBAG BIKOITZA OPARI

EDO BALIO
BEREKO DESKONTUA
*1.989.000 pta.tik AURRERA
(11.954, 13 EURO)



HYUNDAI ATOS

AIRBAG-A OPARI

EDO BALIO BEREKO DESKONTUA
*1.130.000 pta.tik AURRERA.
(6.791,44 EURO)



u rte ko
od. 00.000 km

garantia

= 11

AUTO EDER BATEN JABE IZAN NAHI BADUZU, ERREPARATU OBJEKTIBO HAUEI. HYUNDAI ACCENT, LANTRA eta ATOS ORAINTXE DITUZU BEGIBISTAN. JANTZI ARROPA EROSOA, KIROLERAKO OINETAKOAK ETA ZATOK HURBILEN DAUKAZUN HYUNDAI KONTZESIONARIORA. ZAIN GAUZKAZU.

BEZEROENTZAKO TELEFONOA: 902 246 902

Tenintsularako eta Balearretarako gomendatutako prezioak. Matxulazio zerga, garraio BEZa, matrikulazioa, plakak eta promozio deskontua barne. Hyundai Espaiak eta bere kontzesionario sareak elkarlanean egindako promozioa. Promozibak hitz amaiera arteko balioa du stock-ean dauden autoentzat.



HYLIT1D111

Mendaro Autoak

Elgoibar - OIaso, 27 943 74 32 00
Eibar - OIaola, 27 70 13 82
Irun - Pinar, 21 943 61 02 00
Beasain - Nafarroa, 45 943 34 00
Donosti - Zumalakarregi, 1 - 943 31 22 00